

2003KO EKAINAREN 11KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hiruko ekainaren hamaikan, eguerdiko ordu batean, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkate Jaunaren lehendakaritzapean, soil soilik aurreko aktak onartzeko ez-ohiko batzaraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Gorka Lamy Intsausti J., Arantxa Zumelaga Agirre A., Igor Sarriegi Zumarraga J., Inazio Estensoro Eskisabel J. eta Juan Manuel Serna Portugal J.

Irantzu Amundarain Irizar A., Jon Agirre Garmendia J., Urko Irastortza Aldanondo J, Joseba Hernandez Madinabeitia J. eta Jose Luis Otamendi Romero J. ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTEN ONARPENA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Osoko Bilkuraren onespenera jartzen da 2003ko maiatzaren 12ko ohiko batzaraldiko akta.

Alkateak esaten du berak bi matizazio egin nahi dituela: aktaren haseran esaten denean Eguneke Gai Zerrendan 4. puntuan (Zentru Gerontologikoa eraikitzeke beharrezkoak diren lursailak Gipuzkoako Foru aldundiari ematea onartzea) akordio bat gaineratu behar dela, ez dela zuzena, egiazki akordioa 3. (6 Hako Hirigintz Hitzarmena) eta 4. puntuekin erlazionatuta dagoela dio baina puntu independente bat dela.

Eta bigarrenenez esaten du 6 Hako Hirigintz Hitzarmenean, 5. puntuan, argitu nahi duela Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikusketa 2006ko abenduaren 31rako egitea ez dela berez beharrezkoa, gauza dela teknikariek posible ikusten zutela data horretarako egitea eta horregatik ezarri zela data hori, baina gero hitzarmena sinatzen dutenek eskatuta, eta teknikariek kontsultatuta baita ere, konpromisoa hartzen duela Udalak epe hori 6 hilabetetan laburtzeko, 2006ko ekainera.

Ondoren Estensoro (EAJ-EA) zinegotziak beste zuzenketa bat egiten du: esaten du 8. puntuan, Sakabanaketari buruzko Mozioan, aktak jasotzen duela Belen Gonzalezekin egon zirela beraiek, baina zehazten du hau ez dela zuzena, eta proposatzen du egokiena esaldia kentzea izango litzatekela.

Aipatu hiru zuzenketa hauek egin ondoren, 2003ko maiatzaren 12ko ohiko batzaraldiko akta onartzen da.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Jaunak bilera amaitutzat jotzen du, eguerdiko ordu bata eta laurden direnean nik, Idazkari Akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.